

Azpeitian, 2013ko apirilak 18an

Lankide agurgarria,

Dakizuenetz, azken hilabetetan gure udalerriko **arlo sozial eta ekonomikoari buruzko Diagnostikoa** osatzen aritu gara, **Azpeitia 2025 Plan estrategikoaren** definizioaren testuinguruan. Diagnostiko honek udalerriko egungo egoera ezagutzeko, indar guneak eta puntu ahulak identifikatzeko eta lehentasunezko eremuak zehazteko aukera eman digu.

Analisi hau, eta bereziki identifikatu diren lehentasunezko eremuak abiapuntutzat hartuta, datozen hilabetetan **Plan berria** definitzea aurreikusten dugu.

Planaren definizioan sartu aurretik, **formulazio estrategikoa** egingo dugu, hau da, udalerriko ikuspegi bat formulatuko dugu, Planaren ezarpenarekin lortu nahi ditugun xedeak definituko ditugu eta datozen 8 urteetara begira udalerriko helburu estrategikoak zehaztuko ditugu.

Datorren ostegunean, **apirilaren 25ean, goizeko 10etan** egingo dugun bilerara gonbidatzen zaituztet. Bileraren helburuak ondoko hauek izango dira:

- Diagnostikoaren emaitza nagusienak ezagutarazi.
- Plan berriaren oinarri izango diren lehentasunezko eremu nagusienak adostu.
- Helburu estrategiko eta xedeak definitzeko proposamenak jaso.
- Udalerriko ikuspegia definitzeko ideiak jaso.

Aldez aurretik zure parte hartzea eskertuz, agur bero bat,

Eneko Etxeberria
Alkatea